

**PLANIFIKAZIOA, ANTOLAKETA ETA  
BALIABIDEEN KUDEAKETA  
ERAGINKORRA**

# 1.-ESPARRU OROKORRA: JARDUERA-ILDO HONEN DEFINIZIOA

## JUSTIFIKAZIOA

Ikastetxeko zuzendaritzaren funtzioa funtsezkoa da ikastetxearen funtzionamenduan eta ikasleei eman beharreko erantzuna kalitatekoa izateko orduan.

Programan parte hartzen duten ikastetxeen % 50 bat baino gehiagotan 4 urterako proiektua aurkeztu du zuzendaritzak eta prestakuntza-ebaluazioaren prozesuan dago; Hezkuntza Ikuskaritzak du ebaluazio horren ardura. Ebaluatzeko prozesu hori otsailaren 3ko 22/2009 dekretuak, maiatzaren 8ko 61/2012 dekretuaren bidez aldatuak, ezarritako irizpideen arabera da eta irizpide horiek 5 dimentsiotan azaltzen dira (helburu eta estrategien definizioa, ikastetxeko zuzendaritza, antolaketa eta funtzionamendua, lidergo pedagogikoa, barne eta kanpoko eragileen parte-hartzea eta laguntza, ebaluazioaren sustapena eta aldaketaren kudeaketa), jarduera-ildo honen edukiari bete-betean aurre egiten diotenak.

Bestalde, gainontzeko ikastetxeek hiru ikasturtetarako izendatutako zuzendaritzak dituzte, programa hau aurrera eramaten den aldiarekin bat etorrita.

Horregatik, programa hori zuzenduta dagoen ikastetxeetako zuzendaritzak programaren aldian egonkorrak izango direla esan daiteke. Hala ere, egonkortasun hori zuzendaritzek apur-apurka gaitasun handiagoa izatearekin osatzea inportantea da, ikastetxeak aurre egin beharreko erronkak (jarraipena eta ebaluazioa barne) estrategikoki behar bezala planifikatzeko eta dauden giza baliabide eta baliabide materialak eraginkortasunez kudeatzeko.

Ikastetxe eraginkorretan planifikazio estrategikoa eta antolaketa egokia funtsezko elementuak dira, dauden baliabideak ahalik eta eraginkortasun handienarekin errazago erabili ahal izateko.

PISA 2013 txostenaren ondorioen eta gaitasunak garatzeari buruzko nazioarteko ikerketaren arabera, hezkuntzan gero eta baliabide gehiago inbertitzeak proportzioa izaten du emaitzetan. Dena den, "atari-inbertsio " batetik aurrera, erlazioa ez da proportzionala eta batzuetan ez da inolako eraginik ikusten. Hau ondorioztatzen da: testuinguru honetan baliabideak eraginkortasunez erabiltzea da benetan eragina duena.

Argi ikus daitekeenez, baliabideak izate hutsak ez du ikastetxe batek kalitateko hezkuntza bat eskainiko duela bermatzen. Dauden baliabideek- materialek eta giza baliabideek- hezkuntza- eta antolaketa-jarduera erraztu edo zailtzen dute eta, beraz, ezinbesteko baldintza diren arren, ez dira hobekuntza bermatzeko nahiko (Muñoz Repiso, 1995, OCDE).

Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2010-2012ko txostenean jasota agertzen denaren arabera, gure Autonomia Erkidegoan urtean 6270 €tik 6340 €ra bitartean inbertitzen dira, batez beste, ikasleko eta batez besteko hori estatuko erkidego guztien batez besteko inbertsioaren aurrealdean dago.

Hala ere, Hamaika Esku programako ikastetxe gehienek baliabideak areagotzeko eskatu dute, haien ustez areagotze horrek eragin esanguratsua izan baitezake eskaintza pedagogikoaren eta, ondorioz, ikasleen hezkuntza-emaitzen hobekuntzan. Gainera, dauden baliabideak zuzen eta eraginkortasunez banatu eta kudeatu behar direla azpimarratzen dute.

Horiek horrela, ikastetxe horiei aparteko baliabide batzuekin laguntza emateko ahalegina egin du Administrazioak. Hala ere, eta lehen adierazitakoaren ildotik, haien eraginkortasuna bermatu behar da eta, horregatik, jarraipen bat egin behar da, baliabide horiek ikastetxeen funtzionamendua hobea izateko eta ikasleen hezkuntza-emaitzak hobekuntza izatea sustatzeko eragina izango dutela bermatzeko.

### Programaren HELBURUAK jarduera-ildo honetan:

**1.- Programaren ikastetxeetako zuzendaritzek planifikatzeko eta kudeatzeko gaitasun hobekuntza izaten laguntzea.**

**2.- Ikastetxeek beren jarduera planifikatu eta beren baliabideak antolatzeko orduan eraginkortasun-irizpideen arabera jokatzeko laguntzea.**

Baliabideak nola erabiltzen ari den konturatzeko analisia eta hausnarketa sustatuz ikastetxeari laguntzea litzateke kontua, ikasle guztiek behar adina baliabide izan dezaten eta ikaskuntza maila ahalik eta handiena izateko baliabideak errentagarri izan daitezten.

Laguntzeko era inportanteena ikastetxe bakoitzean dauden ohiko baliabideen bidez ematen dena da. Ikastetxearen ahalmenari ahalik eta etekin handiena ateratzeko aukera emango duten estrategia ez konbentzionaletara jotzea inportantea da: estrategia metodologiko berritzaileak, irakasleen arteko curriculum-koordinazioa, beste ikasle batzuei laguntza ematen dieten ikasleak, beste irakasle batzuei laguntza ematen dieten irakasleak, ikastetxearekin lankidetzan ari diren familiak ...

**3.- Ikastetxeari emandako aparteko baliabideek balio erantsia ekarriko dutela segurtatu eta sustatzea.**

Ikastetxearen funtzionamendua hobea izateko, hezkuntza-emaitzak hobetzeko, elkarbizitzan eta ikasteko giroan duen eragina egiaztatzea litzateke kontuan, bai zuzenean, bai puntu horiek lortzeko lagungarri diren baldintzak sustatuz.

### LORPENAREN ADIERAZLEAK

1.-Jarduera-ildo honi lotutako helburuak proposatu dituzten zuzendaritzek planifikatzeko eta kudeatzeko gaitasuna hobetu izana baloratzen dute.

2.-Berritzeguneko aholkularitzak eta Ikuskaritzak egindako jarraipenean baloratzen denez, kasuen % 80tan eraginkortzat jotzen dira ikastetxeak, baliabideak erabiltzean, baliatutako irizpideak.

3.- Hezkuntza Ikuskaritzak egindako jarraipenean adierazten denez, kasuen % 90ean aparteko baliabideak lagungarri izan dira ikastetxearen funtzionamendua eta ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzeko orduan.

## JARDUERA-ILDO HAU DEFINITZEN DUTEN ALDERDIAK

### PLANIFIKAZIOA:

- Planifikazio estrategikoa, helburu argi eta konkretuetan zentratua (helburuak, ikastetxe osoari dagozkion gai pedagogikoak lantzea).
- Funtsean hezkuntza-izaera duten helburuak, testuingurura eta ikastetxean antzemandako premia eta aukeretara egokituak.
- Ikastetxeak garatzeko aukera berriak bilatzeari lotutako helburuak.
- Giro positiboa sortzea, hezkuntza-jarduera orden, segurtasun eta lan eraginkorraren giro batean gauzatzeko eta elkarbizitza harreman positiboetan oinarritzeko aukera emango duena.
- Helburu horiek ikastetxearen bizitza planifikatu eta ordenatzeko tresnen bidez, proiektu koherenteetan eta lortzeko moduko helburuetan konkretatzen dira.
- Ikastetxea epe erdi eta luzera planifikatzeko agiriak.
- Urteko planifikazioa: Ikastetxearen Urteko Plana eta Memoria.
- Urteko helburuak konkretatzea.
- Helburuen ebaluazioa: jarraipenaren eta lorpenaren adierazleak.
- Hobekuntza sistematikoki antolatzea, barne eta kanpoko ebaluazio-prozesuetatik abiatuta.

### BALIABIDE EKONOMIKO, PERTSONAL ETA MATERIALEN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA:

- Irakasleek ikastetxean lana era koordinatuan egitea sustatzea.
- Koordinazio-organoen funtzioak banatzea.
- Ardurak antolaketa guztian banatzea.
- Erabakiak hartzeko prozesuan inplikatzeko laguntzea.
- Irakasleak motibatzea eta hezkuntza-jardueraren aldeko konpromisoa izatea lortzea.
- Garapen profesionala sustatzea.
- Eraginkortasun-irizpideen arabera jokatzeko ziklo eta etapa mailako koordinatzaileak izendatzeko orduan.
- Irakasleak taldekatzea.
- Bilerak eraginkortasunez diseinatzea eta denbora eta talde-lana banatzea.
- Barne komunikazioaren prozesua.
- Espazioen kudeaketa.
- Espazioen kudeaketa.
- Irakasleen irakaskuntza hobea izateko curriculum-neurriak sustatzea (adostutako erabaki metodologikoak, arlo eta irakasgai desberdinetako planteamendu didaktikoak, motibazioa piztu, sustatu eta edukiarekiko interesa sortuko duten baliabide didaktikoak erabiltzea, errefortzu- eta zabaltze-jarduerak, ikasleen ebaluazioa, aniztasunari arreta emango zaiola eta desberdintasunak orekatuko direla ziurtatuz, egiazko ikaskuntza eta gaitasunak

- eskuratzea, ikasle bakoitzaren errendimendua eta eskola-arrakasta handiagoa izatea).
- Ikasleekin, familiarekin ... banakako elkarrizketen eraginkortasuna hobetuko duten prozedurak eta elkarrizketa horien alde nabarmena partekatzea (konpromisoak, erregistroa, irakaslearen koadernoak).
  - Tutoretzan aritzeko eta ikasleen hezkuntza-aurrerapena orientatu eta gidatzeko bitartekoak izatea.
  - Haien seme-alaben hezkuntzari eta hezkuntza hartan izan beharreko inplikazioari buruzko informazioa familiei helaraztea.
  - Ikasleen, familien eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonalaren inplikazioa eta konpromisoa bultzatzea, haiek guztiak baitira, irakasleekin batera, hezkuntza-erkidegoko eragileak.
  - Ikastetxetik kanpoko beste erakunde, instituzio eta pertsona batzuekin lankidetzan aritzeko sareak sortu edo sustatzea.
  - Baliabide materialak: urteko hornikuntza ekonomikoa. Kudeaketa-planetan, Ikastetxearen Urteko Planaren barruan, jasota geratzen dira.
  - Ikastetxearen aurrekontua egiteko prozesua koordinatzen du zuzendaritzak eta aurrekontua esleitzeko ikastetxearen premietara egokitutako irizpideak ezartzen ditu.
  - Irakasleen lana errazteko eta irakatsi eta ikasteko prozesua hobea izateko erabiltzen da baliabide ekonomikoen kudeaketa.

**GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETARI** dagokionez, bereizketa hau egingo da:

- A) Baliabide pertsonal orokorrak: ikastetxeak, oro har ezarritako irizpideen arabera, dagoeneko dituen baliabideak: irakasle tutoreak, irakasle espezialistak, aholkularia, orientatzailea, hezkuntza-premia berezietako ikasleei arreta ematen dieten irakasleak, Hizkuntza Errefortzuko irakaslea, kultura arteko dinamizatzailea.
- Klase-orduak arlo edo irakasgaien arabera banatzea
  - Orduen dotazioa ikastetxearen eskura izatea.

- B) Aparteko giza baliabideak: programan egoteagatik esleitu zaizkionak ikastetxeari
- Zerbitzu-eginkizuneko lanpostuak

Programa honetan egoteagatik ordu-hornikuntza gehigarria.

Alderdi horiei dagokienez, azpimarratu behar da zuzendaritza taldeak baliabide pertsonalen (izaera orokorra eta zerbitzu-eginkizunak) eta bitarteko kargudunen banaketaren eraginkortasuna eta efizientzia zehaztu behar duela.

## LANTZEKO FUNTSEZKO ALDERDIAK PROPOSATZEA. LORPENAREN ADIERAZLEAK ZEIN MAILATAN AGERTU AHAL DIREN MAILAKATZEA.

Jarduera-ildo honek azaltzen dituen alderdi guztien artean, eragiteko elementu batzuk selekzionatu dira.

Selekzionatutako alderdi bakoitzean orientabide edo jarraibide batzuk aurkezten dira, abiapuntua eta, haietako bakoitzean aurreratzeko, eman daitezkeen urratsak identifikatzen laguntzeko.

Aparteko baliabideak bereiz jasotzen dira, jarraipen espezifikoa egitea eskatuko baitute.

### LIDERGOA, PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKETA

*(“Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. Dimentsio eta irizpideak. Irizpide bakoitza zein mailatan lortu den maila deskribatzea “ agiria ikusi. )*

GIZA BALIABIDEEN PLANIFIKAZIO ERAGINKORRA	
ALDERDIA	ARGIBIDE ETA ORIENTABIDEAK
1. alderdia <b>Eraginkortasun-irizpideen arabera jokatzeko koordinatzaileak/ tutoreak,..., kargudunak izendatzeko orduan</b>	Koordinazio-lana errazteko irizpideak ezarri ditu zuzendaritza-taldeak: ziklo /etapa ezagutzea, talde-lana bultzatzea, koordinatzaileak ... izendatzeko orduan parte hartzea. Eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideak ikastetxearen AJAn edo IUPn zehaztuta daude.
2. alderdia <b>Klase-orduen banaketa</b>	Irizpide argiak, ikastetxearen dokumentazioan ezarri eta jasotakoak, ikusten dira ikastetxean. Esperientzia edo gaitasun handiena duten irakasleentzat zailagoak diren talde edo arlo edo irakasgaien ardura hartzen da. Ikastetxearen eskura dauden orduak irakasleen arteko koordinaziorako erabili ahal izatea sustatzen da.
3. alderdia <b>Ikastetxearen eskura dagoen denbora banatzea</b>	Ikastetxearen funtzionamenduan edo ikasleei eman beharreko arretan begi-bistako eragina duten laguntzak, bikoizketak edo beste jarduerak batzuk antolatzen dira. Ezarririkako laguntzak ebaluatu egiten dira, eta proposatutako helburuaren lorpen-maila neurtzen da.
4. alderdia <b>Irakasleak ez daudenean ikasleei arreta ematea</b>	Mailen arabera sailkatutako jarduerak batzuk daude, aurreikusten ez diren hutsegiteen kasuan erabiltzeko. “Zaintzetan “ irakatsi eta ikasteko jarduerak egiten dira. Ordezkapenen kasuan planifikatutako lanarekin jarraitzeko eskura dagoen irakaslearen koadernoak. Ikasleen aniztasunarekiko hezkuntza-arretarako protokoloak daude, ikasleak zailtasunak dituela antzematen denean.
5. alderdia <b>Bilerak eraginkortasunez discinatzea</b>	Koordinazio-bileretan landu beharreko helburuak eta gaiak argiak dira. Koordinazio-bilerak (ziklo /mailako koordinazio pedagogikoa) planifikatzen dira eta planifikazio hori egutegi batean agertzen da. Zuzendaritza-taldeak,

	<p>koordinatzailearekin batera, gai-zerrenda, lan-plantilak eta bileren aktak zehazten ditu.</p> <p>Helburu konkretuengatik egiten dira bilerak eta guztiei etekina ateratzen zaie.</p> <p>Akordio eta adostasunean oinarritutako estrategien bidez eta parte-hartzea bultzatuz hartzen dira erabakiak.</p>
<p>6. alderdia: <b>Informazioa eta barne komunikazioa</b></p>	<p>Badira informazioa puntu-puntu iristea bermatzen duten sistemak.</p> <p>Lantaldeen akta publikoak.</p> <p>Ezarritako lantaldeetako lana edo ikasgela edo zikloetan eginiko esperientziak Klaustroari aurkeztea, azaldu diren zailtasunak eta lorpen edo indarguneak adieraziz.</p> <p>Lan taldeei/Klaustroari itzultzea IUPren jarraipena eta ebaluazioa, aurretik zehaztutako uneetan behin ikasturtearen erdialdean)</p>

<b>APARTEKO GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA ERAGINKORRA</b>	
<p>1. alderdia /baliabidea: <b>“Hamaika Esku “ zerbitzu- eginkizunak</b></p>	<p>Hobekuntzak ikusten dira gelaren kudeaketan eta ikasleei arreta emateko orduan (absentismoa, elkarbizitza, familiak, metodologia, tutoretza, ikasleen ikaskuntzan izaten den inplikazioa ... ), irakaslearekin harreman zuzena duten eginkizunetan.</p> <p>Irakaslearen parte-hartzeak balio erantsia ematen dio ikastetxeari (koordinazio-egiturak, inplikazioa ... ).</p>
<p>2. alderdia /aparteko baliabidea <b>Zuzendaritza- lanetarako ordu gehigarriak ematea</b></p>	<p>Kudeaketan hobekuntzak, baliabidearekin zuzenean lotutakoak, ikusten dira.</p> <p>Lidergoa banatzen dela ikusten da.</p> <p>Antolaketa-egitura eta ikastetxeko koordinazio-organoen funtzioak hobetu direla ikusten da.</p>
<p>3. alderdia /aparteko baliabidea <b>Hizkuntza Errefortzuko irakaslearen baliabide gehigarria</b></p>	<p>Hobetu da arreta harekin ari diren ikasleekiko banakako /talde mailako arreta.</p> <p>Testu akademikoaren mailan, arreta ematen dien ikasleen hizkuntz gaitasuna hobetu dela ikusten da.</p> <p>Arreta ematen dien ikasleen kotutorea dela onartu duela egiaztatzen da.</p>
<p>4. alderdia /aparteko baliabidea <b>Aparteko mugak talde /geletako ratioetan</b></p>	<p>Ikastetxeak, ohiko baliabideen bidez, laguntzak inplementatzen ari da ikasleentzat. Hobea da gelaren ohiko testuinguruan ikasleei ematen zaien banakako arreta (PIREs).</p>
<p>5. alderdia /aparteko baliabidea: <b>Aparteko mugak ikasleak epez kanpo hartzean</b></p>	<p>Harrera-plana praktikan jartzearen bidez hobetu da ikastetxean duela gutxi hasi diren ikasleei ematen zaien banakako arreta.</p> <p>Ikastetxeak, ohiko baliabideen bidez, laguntzak inplementatzen ditu ikasleentzat.</p>
<p>6. alderdia /aparteko baliabidea: <b>Lanaldi jarraiaren egutegia</b></p>	<p>Badago arratsaldeko ordutegian egiten diren jardueren, ikastetxearen proiektuei lotutakoak, organigrama bat (IHP, Ikastetxearen Urteko Plana, Hobekuntza Plana ... ).</p> <p>Antolatutako jarduerak ikasle guztientzat dira (hezkuntza-premia berezietakoak, gizarte-baztertzearren arriskua dutenak ... ).</p> <p>Ikasleen kopuru esanguratsu batek (DBHko ikasleen % 50) hartzen du jardueretan parte.</p>
<p>7. alderdia:</p>	<p>Ikusten denez, irakasle-taldeak erabiltzen du baliabidea.</p>

<b>ACEXen hornikuntza</b>	Ikastetxean edo gelan hobekuntzak, irakaslearen jarduerari zuzenean lotutakoak, ikusten dira (lanak egitea, irakurketa sustatzea ...).
8. alderdia: <b>EXEren hornikuntza</b>	Aurreko ikasturteetan ikusitako zailtasunak gutxiago direla ikusten da. Ikastetxean edo gelan hobekuntzak, irakaslearen jarduerari zuzenean lotutakoak, ikusten dira.
9. alderdia:	

## 2.-IKASTETXEARI LAGUNTZEKO TRESNAK

### 2.1.- PROPOSAMEN METODOLOGIKOAK:

#### PRINTZIPIOAK

**- Aniztasunari arreta inklusiboa.**

Jarduera-ildo honetan **praktika inklusiboek** bi ardatz izango dituzte: ikasteko prozesua antolatzea eta ikastetxearen baliabideak mobilizatzea.

**- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea:**

Ikastetxeek kontuan hartzen dituzten agiri eta jarduera guztietan integratu behar da **hezkidetza-eredua**, ez direla izaera sexista duten material eta praktikak erabili behar azpimarratu behar du eta berdintasunaren aldeko irizpideak sartu behar ditu.

Dauden baliabide guztiak ikasleen eta beren garapenaren ikuspegitik koordinatu eta bistaratu behar dira.

**Ondorengo faktoreak dira eraginkortasunerako lagungarri:**

-Guztien **inplikazioa**, baliabide guztien koordinazioa, **planifikazio** egokia, lan-giroa, bakoitzaren trebetasunak aprobetxatzea, egiteko ona eta inplikazioa baloratzea ...

**-Eskola-denbora eta espazio guztiak ikasteko aprobetxatzea**

- Gelan eragiten duten profesional guztien **baterako hausnarketa**, hiru oinarritzko alderdiri begira: zerk funtzionatzen duen aurkitzea, nola funtzionatzen duen ezagutzea eta zergatik funtzionatzen duen jakitea, hots, gerta dadin behar diren baldintzak identifikatzea.

- Curriculum eta gelako jarduerak diseinatzeko era desberdinak ondo ezagutzea.



-Ikaskuntzarekiko ikasleen motibazioa laguntzeko estrategiak, haien autonomia, ikaskuntzen esanguratsutasuna, eskolari lotutakoaren aldeko sentimenduak, ikasleen arteko lankidetzalana ...

-Irakasle eta ikasleen artean entusiasmoa eta inplikazioa sortuko dituzten proiektu motibatzaileak.

-Gelaren antolaketa: autonomiari laguntzeko eta ikasleei eman beharreko arreta eta berorien jarraipena errazteko.

-Ikastetxearen antolaketa eraginkorra: bikoiztasunak, galdutako denbora eta ahaleginak edo esfortzuaren eta lorpenen arteko proportzio falta dagoen denbora eta ahalegin horiek ekiditeko.

-Lidergo partekatua. Ardurak banatzea.

## ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK, LANERAKO SELEKZIONATUTAKO FUNTSEZKO ALDERDI BAKOITZARI BURUZKOAK.

### ANTOLAKETA-ESTRATEGIEI ETA GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETARI BURUZKO PROPOSAMENAK:

#### Lidergoa: zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa ikusi

*("Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. Dimentsio eta irizpideak. Irizpide bakoitza zein mailatan lortu den deskribatzea " agiria ikusi)*

#### PLANIFIKAZIOARI begira:

- Ikastetxearen agiriak, AJA eta IUP, berrikustea /egitea.
  - Klase-ordutegia mailen /zikloen /etapen arabera banatzea.
  - Tutorearen funtzioak: ikaslea /taldea /familiak
  - Barne komunikazioaren prozesuak
  
  - Ikasleak taldekatzeko irizpideak: berrikusteko uneak
  
- Ikasturtearen hasierako ebazpena eta Ikastetxearen Urteko Plana- MEMORIA egiteko gidaren ereduaren arabera jokatzeko
  - URTEKO HELBURUAK: aurrera eraman beharreko jarduerak /arduraduna era eragileak /denboralizazioa
  - HELBURUEN EBALUAZIOA: jarraipena egiteko eta zein mailatan lortu diren aditzera emateko adierazleak

#### ANTOLAKETARI begira:

- Tutoreak esleitzeko irizpide argiak.
- Ziklo /etapa mailako koordinatzaileak eta departamentuko burutzak esleitzeko ezarritako irizpideak.
- Batzorde Pedagogikoko kideak.
- Irakasle berriei harrera egiteko protokoloa.
- Kurtso /ziklo /etapa mailako akordioak zehazteko bileren egutegia.
- Bileren kudeaketa eraginkorra: gai- zerrenda /ondorioak /proposamenak jasotzea.
- Lantaldeen parte-hartzea sustatzea.
- Ikastetxearen eskura dauden denborak banatzea: **ikasleei** ikuspegi inklusiboaren ildotik **arreta emateko taldekatzeko era berriak** (PT, Hizkuntza Errefortzuko irakaslea, gelan bi irakasle ... baliabideak erabiltzea). Ikasleak gelan taldekatzeko edo arreta emateko era berrien antolaketa ahalbidetzea, helburu argi batekin (2 irakasle PT saio batzuetan, Hizkuntza Errefortzuko irakaslea): ondorioak ateratzeko jarraipena eta balorazioa, ezarritako laguntzak, ikasleei banakako arreta ematea ...
- Klasea ematekoa ez den denboran egindako klase-jardueren koordinazioa.
- Espazioen kudeaketa: ikastetxea klase-orduetatik at irekitzea, GEren jarduerak, beste laguntza batzuk.
- Eskolaz kanpoko jarduerak egiteko iradokizunak /proposamenak GErri egitea (koordinazio-bilerak).

#### BALIABIDEEN KUDEAKETARI begira:

##### -GIZA BALIABIDEAK:

a) Baliabide orokorrak:

*Irakastorduak banatzeko irizpideak*

*-Hizkuntza Errefortzuko irakaslea: funtzioak, ikasleei arreta zuzena emateko ordutegia.*

*-Aholkularia- orientatzailea : funtzioak, **PIREen jarraipena***

***-Kultura arteko dinamizatzailea.***

b) Aparteko baliabideak:

*Zerbitzu-eginkizunak: irakasleen egonkortasuna (lanpostuaren balio erantsia), betetzen ari diren funtzioak /eginkizunak.*

##### -BALIABIDE DIDAKTIKOAK

- Ordezkapenen protokoloa: kurtso /ziklo mailan ezarritako laguntza-materiala
- Irakasgaietako /arlotako unitate didaktikoen garapen maila
- Ebaluazio-irizpideen eta kalifikazioen mailan hartutako akordioak. Irakaslearen koadernoak. Erregistro-orriak.
- Ikastetxerako ikasturtearen MEMORIA egiteko txantilo bateratuak (Pedagogia Batzordeak onartuak)

##### -BALIABIDE MATERIALAK:

- Ikastetxearen aurrekontua egiteko orduan ezarritako irizpide argiak.

- Irakasle-taldeak parte hartzea ikastetxearen premiak antzemateko prozesuan. Baliabide ekonomikoen kudeaketa irakatsi eta ikasteko prozesua hobetzeko erabiltzen da.

## 2.2.- AUKERATUTAKO JARDUERA-ILDOAN EDO ALDERDIAN LANA PLANIFIKATZEKO ORIENTABIDEAK:

### 2.3.- PRESTAKUNTZA-PROPOSAMENA

- Hamaika Eskuko zuzendaritza-taldeentzat zuzendarien ebaluazioaren modulua (2. dimentsioa) sartzea.
- Hamaika Eskuko zuzendaritza-taldeentzat, baliabideei begira, eskola inklusiboa prestakuntza-modulua sartzea.
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) ikuspegi inklusibotik egin edo berrikusteko prozesua sustatzea.
- Programazio eta unitate didaktikoak ikuspegi inklusibotik berrikusteko prozesua sustatzea.
- Ebaluatzeke era eta praktikak ikasleen ezaugarrietara egokitzeko prozesua sustatzea.
- Kudeaketa eraginkorrari buruzko prestakuntza (adibidez: kalitatea kudeatzeko sistemak).

## 4.- BESTE OHAR /DIRU-LAGUNTZA BATZUK.

-

### 3.- ERANSKINAK

---